

Iruñean, 1994ko martxoaren 24an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charritton, P.
Diharce, X.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Ondarra, P.
Oyharçabal, B.
Salaburu, P.
Satrustegi, J.M.
Villasante, L.
Zabaleta, P.

Lizundia, J.L., idazkariordea
Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Azken puntuan:

A. Urrutia eta
M. Zalbide, Jagon sailkideak

Iruñean, ordezkartizan, 1994ko martxoaren 24an, ostegunez, arratsaldeko lauetan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria J.L. Davant, J.M. Lekuona, Tx. Peillen eta I. Sarasolak adierazi dute.

Agiria

Otsaileko agiria onartu da, zenbait aldaketarekin.

Barne-erregelak

X. eta XI. atalburuak aztertu dira egun eta 21. artikulutik 25.era bitarteko testua onartu. J.M. Satrustegiren gutuna irakurri da gero, karguen luzeraz. Arautegiak bi urteko agintaldia ezartzen duenez (28. artikulua) eta testu hori ahalik gutxien aldatzea komeni baita, bere horretan uztea proposatzen du. Inor ere aurka agertu ez delarik, bi urteko agintaldiak izango dira, orain arte bezala.

Botoaren prokurazioaz hitz egin da ondoren. J. Haritschelharren proposamena (erabateko askatasunaren alde) eta A. Irigoyenena (kasu berezi batzuentzat bakarrik, ez gai arruntak erabiltzeko, izan dadin eskatuz) eztabaidatu dira. P. Zabaletak beste proposamen bat ekarri du ahoz, hots, gai zerrendan ageri ez denaz ez dadila boto-prokuraziorik eman. J.A. Aranak, halaber ahoz, beste bat aurkeztu du: ahala izan dadila orotarako, baina zerrendan diren gaientzat soilik. Azkenean, lehen bi proposamenak bozkatu dira. J. Haritschelharrek Tx. Peillenen boto ahalatu zuen, eta M. Azkaratek I. Sarasolarena. Isilpeko bozketaren emaitza honako hau izan da:

J. Haritschelharren proposamenaren alde	13 boto
A. Irigoyenen proposamenaren alde	5
Zuriz	1

Gero, E. Knörren proposamena irakurri da. Bozketan parte hartu ahal izateko eta botoaren prokurazioa emateko euskaltzainak urtean lau aldiz etorri behar duela proposatzen du. “Euskaltzain osoen botoen nagusitasuna”, Arautegiak aipatzen duena, une hartan boto eskubidea luketenen kopurutik ulertuko litzateke. J.M. Satrustegik Arautegiak zer dioen zehaztea eskatu du. Erabakiak botoen nagusitasunaz hartuko direla dio 21. artikulua. P. Zabaletaren iritziz, proposatzen dena pixka bat gogorra da eta, zernahi gisaz, bereizi beharko litzateke ezin etorri adierazia, batetik, eta etorri ez eta adierazi ez, bestetik. B. Oyharçabalen ustez, aldaketa handia da eta horretara euskaltzainen eskubideak murrizten dira hein batean. J. Haritschelharrek esan du garrantzi handiko beste artikulua bat aldatzea erabaki dela, hots, ezinduek beren tokia utzi ahal izateaz. Gaia hurrengo batzarran aztertuko da berriro.

Hitanoa

P. Altunak hartu du hitza. Haren aburuz, erabakitzeke garaia da eta aukerak gutxi dira. Adibidetzat hiru forma hauek aipatu ditu: *zegok*, *zagok* eta *diagok*. Maiztasun eta hedaduraren aldetik bi baizik ez dira kontuan hartzekoak: *zegok* eta *zagok*.

A. Irigoyenek esan du *niagok* eta horren ondorengoa dena, *ñagok*, guztiz zabalduak direla. P. Altunak erantzun dio *negok* ere *niagok*-en ondorengoa dela.

M. Azkaratek txosten laburra irakurri du. Bi abiapuntu hauek ditu: “1. Ez dirudi forma zaharretara, ahoz orain, mende honetan, erabiltzen ez diren jotea komeni denik. 2. Literaturan ere ahozko erregistroa jasotzen duten testu idatzietan aurkituko ditugu gehienbat hitanoko formak. Ez digu, beraz, literaturak, gure ahozko euskararen ezaguerak ematen ez digunik emango”. Galdeketa ehuntsu iritzi-maileri eskutaratu zitzaizela esan ondoren, hau proposatzen du: a) *nagok* edo *negok*, baina ez *niagok*, azken hau zaharra izaki eta besteak askoz ere erabiliagoak; b) *negok/zegok* ala *negok/zegok* auzian, *a*-dun formak hartzea, erantzule gehienak horren alde agertu baitira; c) *zabilak* ala *zebilak* eta antzeko hautabidean, *-ek* bukaera hartzea, lehentasuna zor zaionez gero; d) nori formetako pluralgilerako ere laguntzaile arruntaren paradigmak hobestea, hots, *zizkidak*, e.a., *zitidak* eta besteren kaltetan.

Eztabaida luzearen ondoan, bozketan egin da *niagok* ala *nagok* hobetsi behar denentz. Hau izan da emaitza:

<i>niagok</i>	10 boto
<i>nagok</i>	7
zuri	2

P. Altunak esan du euskara batuarekiko erabakizunetan ez dela orain arte horrela jokatu. E. Knörrek Etxepareren *nitorqueçu* gogorarazi du, bizirik dirauten eta hedadura handia duten *niagok* eta beste forma zaharren lekuko.

Euskara batuko batzordekideek eskaturiko bost minutuko etenaldiaren ondoren, P. Salaburuk batzordeak beste proposamen bat ekarriko duela esan du.

Hirugarren pertsonaz mintzatu da gero. A. Irigoyenek esan du *dia-* edo *ze-*ageri direla testu zaharretatik. Une horretan J.L. Lizundiak aditzera eman du batzarreen lana eta jardupidea arautu beharra dela. Horri buruzko iradokizuna aurkeztuko du Zuzendaritzak.

Bozketa egin da, halaber isilpekoa, hirugarren pertsonari dagokiola, eta emaitza hau izan da:

<i>zagok</i>	11
<i>zegok</i>	5
zuri	2
baliogabe	1

Emaitza ezaguturik, M. Azkaratek esan du paradigmak kaleratu baino lehen ongi moldatu behar direla, barne lotura behar baitute. Euskara Batuko batzordeak, esan bezala, lan osoari buruzko beste proposamen bat aurkeztuko du.

Kontuen azalpena

1993. urteko balantzea aurkeztu dute J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomi eragileak. Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Comptos Ganbara Euskaltzaindiaren urte bereko sartze-ateratze guztiak arakatzen ari direla aditzera eman dute.

P. Zabaletak Euskaltzaindiaren inbentarioa egina den galdetu du. Baietz erantzun zaio. Katalogatu eta baloratu gabe dagoen parte liburu-tako ondare zaharra eta biltokia dira.

P. Salaburuk itaundu du ea ezin litekeen katalogatze lana soldadutza-ukataile edota bibliotekonomia masterdunen laguntzaz aurrera eraman. J.A. Aranak erantzun du diru egoera argitu eta hobetu ahala har litezkeela horrelako erabakiak.

P. Charrittonen iritziz, Euskaltzaindiak, egoera hobea etorri bitartean, zer egingizun baztertuko dituen esan beharko luke.

J.A. Aranak Madrileko Gorteen onarturiko diruaren berri eman du. Hizkuntz Akademientzako kopuru bat finkatu da, urteoro berrituko dena. Gainera, ikerketa proiektuen bidez dirua eskura daitekeela esan du. Azkenik, Europar Batasunean den aukera ere aipatu du. Horretarako emango diren urratsez apirileko batzarrean mintzatuko da.

Eskuarteoak

Apirileko batzarrea Gasteizen egingo dela esan du J.L. Lizundia idazkariordeak. San Prudentzioko jaiak direla eta, astebete aurreratuko da osoko batzarrea: hilaren 22an, ostiralez, egingo da. Ageriko batzarrean, Diputazioaren jauregian, Erraimun Olabide, Odon Apraiz, Federiko Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez de Etxabarriren omenezko hitzaldiak izango dira. Hitzegi Batuko Jardunaldiak, be-

rriz, ostiralean eta larunbatean egingo dira, ordezkartizan. LEF jardunaldien bigarren zatia ere egingo da, apirilaren 22an.

Ondoren, A. Irigoyen euskaltzainak, zenbait urgazlek, irakasle batzuek eta bestelako lagunek bidalitako izkribua, "Euskara okerregatik zigorren asmo harri-garriaz" deritzana, aztertu da. Izkribua, euskaraz eta erdaraz, komunikabideetara igorri zen hilaren 18an eta Euskaltzaindiaren egoitzara aipatu euskaltzain osoak martxoaren 23an eraman zuen. Testuan Jagon jardunaldien ondorioen aurkako iritzia azaldu dute sinatzaileek, *zigorbidea* gogoetaren kontra bereziki.

E. Knörr Jagon sailburuak sinatzaileen prozedura gaitzetsi du. Irigoyen jaunari galdetu dio Deustuko unibertsitatean inola ere egingo ez lukeena, adibidez, errektorearekin edo dekanoarekin ados ez egonik, zergatik egin behar duen Euskaltzaindian. Irainez gainezka zegoen haren artikulua, "Ñaño alluzinaturen [sic] baten zigorgura" izenekoa, *Egin-en* (martxoaren 23an) argitaratua, aipatu du halaber. Ondorioen aurka beste artikulua bat (*Euskaldunon Egunkaria*, martxoaren Sean) idatzi zuen P. Charritton Jagon sailkideari ere galdetu dio ea Baionako udalean, bere zinegotzi lanean, inola ere egingo ez lukeena, hau da, arazoak erakundetik kanpo haizatzea, zergatik iruditzen zaion zilegi Euskaltzaindian. Sinatzaileen artean euskara batuaren aurkako amorratuak eta bideseinale-zikintzaileak (*zigorbidea* erabili dutenak, bada) badirela esan du. Azken hitzetan Anton Aranburu, Jagon jardunaldien Akademi batzordekidearen gutunetik zati bat irakurri du.

Mikel Zalbide Jagon sailkidea mintzatu da hurrena. Jagon sailak jendaurreko euskara duina izan dadin nahi duela esan du, eta izkribuagatik eta artikuluenagatik mindua eta mingostua dagoela erantsi. Auziak gizalegez aztertu eta eztabaidatzea eskatu du.

A. Urrutia Jagon sailkideak barruko kontuak barruan garbitzea eskatu du orobat. P. Charrittonen jokabidegatik agertu da kexu. Frantziako moldeak ez duela euskararako balio esan du, gure hizkuntza ahul baitago. A. Irigoyenen artikuluari dagokiola, onar ezina iruditzen zaio.

J.L. Lizundia Jagon jardunaldien akademi batzordekideak hartu du ondoren hitza. Sinatzaileetarikoa den Anton Aurre, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariaren idazkia aurkeztu du, euskara batuko ortografian ez dagoena. Halaber izkribuaren sinatzailea den Tomas Uribebebarriak, Bizkaiko foru diputatuak, sinaturiko zenbait dekretu aipatu ditu, eta bertan *zigorbidea* edo zehapen erregimena ageri dela aditzera eman. Euskara zuzenaren edota euskararik ezaren arazo Jagon sailaren ez ezik, beste herrikide askoren kezka dela esan du. Adibidetzat Gasteiztik Agurainerainoko autobideko seinaleak ezarri ditu, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza eta Turismo Sailarentzat agentzia batek egingadako hutsen aitormena.

P. Charrittonek *Euskaldunon Egunkari*-koa *La Croix* berriraperean agertu artikulua irakurri ondoren idatzi zuela aitortu du. Bere hutsagatik barkamena eskatu du eta Jagon sailean tokia uzteko prest agertu.

P. Altunak hitz egin du gero. Euskaltzaindian bertan laidoak eta irainak errazgi jaurtikitzen direla esan du. Haren ustez, ez dago eskubiderik. Berotzea eta

haserretzea normala dela iruditzen zaio, baina irainik ez erabiltzea arren eskatu du.

P. Salaburuk hau ez dela lehen aldia adierazi du eta Akademiak batzorde guztietan duen ueste ona agertu behar duela. Batzordeen arteko begirunea eta leialtasuna nahitaezkoak direla esan ondoren, eskatu du Euskaltzaindiarekikoak batzordeetan eta osoko batzarreetan eztabaida eta erabaki daitezzen.

A. Irigoyen mintzatu da gero. Ondorioak hileko batzarretik ez zirela pasa esan du. Haren aburuz *zigorbide* hitzaren adiera garbia da. Bestalde, sinadurak ez zituela berak bildu aditzera eman du, eta sinatzaile batzuk ez dituela ezagutzen.

J.A. Aranak hasieran ere ez zuela *zigorbide* hitza ongi ikusten esan du, eta hala adierazi zuela Zuzendaritzan.

J.L. Lizundiak Euskaltzaindiaren orain arteko jokabidea azaldu du. Kongresuen eta jardunaldien bukaeran irakurri diren adierazpenak aipatu ditu, hala nola Renon, 1992ko irailean, A. Irigoyen partaide izan zela. Ondorioak, *desideratum* gisakoak izaten direnak, erabaki akademikoak baino areago, dagokion batzordeak prestatzen dituela esan du. *Zigorbide* hitzari dagokiola, berriz, adiera argia du, haren iritzi, hots, zigorra ezartzeko era.

P. Salaburuk aipatu du Euskal Herriko Unibertsitatean ez dela agindutako lan bat ordaindu, euskararen aldetik hutsak baitzitu. Ondoren, auzi honen gaineko adierazpen zirriborroa irakurri du.

B. Oyharçabalek hitz egin du, deus ere ez kanpora ateratzearen aurka. Horrela ere onartu da aho batez. Agirian Euskaltzaindiak horrelako jokabidea gaitzesten duela eta bere batzordeen lanean duen konfidantza berresten duela azalduko da. M. Azkarateren iradokizuna jasoaz, urgazleei azalpen bat bidaltzea komeni denentz aztertuko du jardunaldien akademi batzordeak.

F. Krutwig izkribuaren sinatzailea den J.J. Pujana urgazlearen alde mintzatu da, Jagon jardunaldien ondorioak ez zituela ongi aditu aitortu baitzion. Bestalde, Euskaltzaindiaren eta euskararen kaltetan gerta daitekeen kazeten erabileraren arriskua aipatu du.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.